

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko apirilaren 24a. IX. urtea. 2.582. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Migel Soroaren oroimenezko pilota txapelketa larunbatean hasiko da

Migel Soroa elduindar pilotariaren oroimenezko I. Ogi Berri txapelketa antolatu dute; kadeteek, jubenilek eta etorkizun mailakoek jokatuko dituzte partidak

Pilota munduko jende ugari eta izen handiak elkartu dira txapelketaren aurkezpenean, etorkizuneko pilotariekin batera, Ogi Berrik Alegian duen eraikinean **4-5**

Tolosako Udalak oinezko bideen egoera hobetu nahi du herritarrekin

Irisgarritasun plana garatuko du udalak datozen asteetan, eta 80.000 euroko aurrekontua bideratu du obrak gauzatzeko **2**



San Esteban auzoan dagoeneko hasi dira zenbait lanekin. I. URKIZU



MIKEL IRACOLA

→ **Manex Castro euskal presoak etxean izan da.** Billabonatarra gurasoen etxera eraman zuten, atzo goizean. Duela bi aste, bere aitaren heriotzaren berri izan ondoren, Cadizeko Puerto espetxetik Villabonarako bidean jarri zuten. Lau orduko bisitaren amaieran, herritarren eta ertzainen artean tentsio uneak bizitu ziren. **3**

Mari Jose Aranguren Ekonomian aditua eta ikerlaria

«Auzolanerako sustraiak berriz indartu beharko lirateke krisiari aurre egiteko»

Zizurkilgo Atxulondo kultur etxean hitzaldia emango du, 19:00etan

Elkarrizketa **3**

Adunako Udala «gustura» dago auzo konposta ematen ari den emaitzekin

Lehen sei hilabeteen balantzea egin du udalak; Ibarra, aldiz, 115 familiek eman dute izena, eta udalak bost auzo konposterako gune aurreikusi ditu **6**

Sartu gure webgunean
tolosaldea.hitza.info

Jarraitu albisteak
Twitter bidez
@hitzatolosaldea

hitza info



Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza orrialdeari eman "atsegin dut"



Tolosaldea

→ **Laburrak**

Bordondantzako entseguak ostegunero

TOLOSA › San Joan eguneko bordondantza prestatzen hasi dira. Aurrerantzean, ekainera bitarte, ostegunero izango dira entseguak, Usabal kiroldegian, 20:30etik aurrera.

1948an jaiotako en bazkaria antolatu dute

TOLOSA › Maiatzaren 18an, 1948an jaiotakoek bazkaria egingo dute, aurten 65 urteak ospatzeko. Bazkaria joan nahi dutenek 45 euro sartu behar dituzte Kutxabanken: 2095 506710 9112698117.

Alegiako hondakinez ezker abertzalearen batzarra

ALEGIA › Alegiako ezker abertzaleak batzarra egingo du gaur, 19:00etan, pleno aretoan. Udalak hartutako erabakiaren ostean, hondakinen kudeaketaz ariko dira.

Informazio saioa adinekoen mendekotasunaz

TOLOSA › Tolosako Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako sailak antolatuta hiltzaldia izango da gaur, mendekotasun egoeran dauden adinekoek eska ditzaketen zerbitzu nahiz laguntza sozial eta ekonomiko-en inguruan. Batzarra kultur etxeko areto nagusian izango da, 18:30ean.

Oargiren irteera Iparla mendira, igandean

TOLOSA › Apirilaren 28an, Oargi mendi elkarteak Iparla mendira (1.044 metro) irteera egingo du. Aritzakun bailarako beste ton-tor batzuk igoko dituzte Iparlara iritsi aurretik: Irubelakaskoa, Gorramakil, Gorramendi eta Tutulia. Guztira, 8-9 orduko ibilbidea izango da, 25 kilometrokoa eta 1.000 metroko desoreka duena. Izena emateko: 688 69 86 42 edo info@oargi.org. 10 euro aurreratu beharko dira Euskadiko Kutxako honako kontuan: 3035 0028 11 0281141038.

Irudia Tolosa



LITERATURA KALEAN

Liburuaren Nazioarteko Eguna izan zen atzokoa, eta Tolosaldean ere, hainbat liburu dendak kalera atera zituzten liburuak; irudian, Tolosako San Frantzisko pasealekuko liburu dendak kalean jarri zuen postua ikus daiteke. Dendetako postu berezi eta deskontuz gain, ordea, Tolosako udal liburutegiak ere jarduera bereziak antolatu ditu; liburuak zozketatuko dituzte hilaren 30ean, apirila osoan liburuak maileguan eraman dituztenen artean. ITZEA URKIZU

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



San Esteban auzoan hasi dira jada, oinezko bideetako zenbait obra gauzatzen. I. URKIZU

Oinezko bideak hobetzeko irisgarritasun plana garatuko du udalak, herritarrekin

Lanbideren bidez 14 pertsona kontratatu dituzte sei hilabeterako, irisgarritasun planeko obrak gauzatzeko

Itzea Urkizu Tolosa

Herritarrekin elkarlanean burutu nahi du Tolosako Udalak, eskuaratean duen egitasmoetako bat: oinezkoen bideak eta irisgarritasuna hobetzeko plana. Herriko eragileekin eta herritarrekin bi saio antolatu dituzte horretarako, eta 80.000 euroko aurrekontua bideratuko dute kaleko azpiegiturak hobetzera.

Udalaren ustez, «herritarrek inork baino hobeto dakite, eguneroko ibilbideetan, zein oztopo dauden. Beraz, eurak izango dira egitasmo protagonista». Bide horretan, oinezkoen ibilbide nagusiak hobetu nahi ditu udalak, eta oinezkoen erosotasunaz harago, irisgarritasuna ere hobetuko dute Tolosako kaleetan.

Helburu hauek guztiak aurrera eramateko, bi saioa antolatu ditu udalak, Ibai Iriarte alkateak eta Garikoitz Lekuona Hirigintza teknikariak nabarmendu dutenez. Lehen saioa apirilaren 29an izango da, 19:00etan, kultur etxeko areto nagusian. Bertaratuen artean lan talde txikiak egingo dituzte, eta lehen saioko egitekoa Tolosan oinezkoek gehien erabiltzen dituzten bideak identifikatzea izango da; izendatuko dituzten ibilbideen artean, eraikin publikoetara doazenei garrantzia emango diete.

Bilera honen ondoren, parte hartzaileek hamar eguneko epea izango dute, zerrendatutako oinezko bide horiek aztertzeko, eta konpondu nahiz hobetu behar diren eremuak nabarmentzeko. Udalak, ordea, oztopo arkitektonikoen gain, bestelako ezaugarriak ere begiratu behar zaiela azaldu du; bidegurutzeetan ikusmen eremua zein den, oinezkoen bideak zenbaterainoko luzera dute edo hiri-altzariak egokiak ote diren ere kontuan izango dute.

↓ **Aurrekontua**

80.000

▪ Tolosako Udalak 80.000 euroko aurrekontua bideratu du irisgarritasun planeko obrak gauzatzeko.

Honen inguruan hausnartu eta gero, bigarren bilera maiatzaren 13an burutuko dute. Bestek beste, aurreko bilerako eremuetan dauden puntu beltzak zerrendatuko dituzte, konpontzeko lehentasunaren arabera.

Garikoitz Lekuona teknikariak gidatuko duen parte-hartze prozesua irekia izango da. Udalak, behar bereziak dituzten eragileak eta taldeak gonbidatu ditu aurrez, baina interesa duen edonori dei egin diote, hilaren 29ko bilera parte hartzera. Azkenik, aipatzekoa da, Tolosako oinezkoen bideak hobetu eta obrak gauzatzeko, 80.000 euroko aurrekontua erabiliko duela udalak.

↓ **Iragarki laburrak**

LANBILA

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko, autoa duen emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. 943 696882 / 606 521992.

ALOKAGAI

Etxebizitza. Amezketan, alokairuan hartzeko etxebizitza bat eskaintzen dute. Interesatuak, dei dezatela 645 73 45 84 telefono zenbakira.

Lanpostuetarako bideak

Irisgarritasun planak kaleko bideak hobetzeaz gain, 14 pertsonen lanerako bidea ere hobetu du, izan ere, Tolosako Udalak, Lanbideren egitasmo baten bidez, 14 langile kontratatu ditu azpiegiturarako obrak aurrera eramateko. Sei hilabetez ariko dira, horrela, lanean.

Manex Castro euskal presoak Villabonan izan da

Lau orduko bisita egin du, eta ateratzean, tentsio uneak bizitu dira zain zeudenen eta Ertzaintzaren artean

Mikel Iraola Amasa-Villabona

Manex Castro preso billabonatarra gurasoen etxera eramane zuten atzo goizean, 09:45ak aldera. Duela bi aste, bere aitaren heriotzaren berri izan ondoren, Cadizeko Puerto espetxetik Villabonarako

bidean jarri zuten, baina bi aste behar izan ditu bere sendiarekin elkartzeko.

Castro zekarren autoa errepide erdian gelditu, eta bertatik, preso billabonatarra eskuburdinekin atera zuten. Autotik bere etxera segundo gutxi bidea bertan bildu ziren hainbat herritarren animo artean egin zuten. Lau orduko bisita egin ahal izan zuten etxean, eta goizean zehar, senide gehiago hurbildu ziren, hala nola, bere lehengusu eta izebak. Bere alaba besoetan hartzeko aukera ere izan zuten. Senideen esanetan, Castrok

ondo zegoela esan zuten. Bien bitartean, geroz eta herritar gehiago pirlatzen joan zen etxearen atarian, Castro noiz irteango zain, elkartzuna azaltzeko.

Tentsio uneak

13:30ak aldera, jende mordo bildu zen Castroren etxe azpian azken agurra emateko. Ordu laurden pasa ondoren, ertzainen bi furgoneta azaldu eta jendea zegoen lekutik mugiarazi zuten, poliziaren autorako bidea garbi utziz. Castro etxetik atera zutenean, bertan bildutako lagun, ezagun eta herritar

rrak oihuka eta txalo artean agurtu zuten. Une horretan, ertzainetako batzuk jendea bultzatzen eta kolpatzen hasi ziren, eta gizon heldu bat lurrera bota zuten. Oldarraldiaz gain, bigarren furgonetako gidariak jendea iseka eginez eramane zuten lekutik ibilgailua. Tentsio handiko uneak bizi izan ziren alde egin zuten arte.

Bideoak eta argazkiak.

Albiste zabalago 'tolosaldea.hitzza.info' webgunean.



Manex Castro alabarekin. M. IRAOLA

Mari Jose Aranguren ◊ Ekonomian aditua eta ikerlaria

Unibertsitateko ikerlaria eta Orkestra lehiaketarako euskal institutoko zuzendaria da Aranguren, eta krisitik ateratzeko bidea zein den azalduko du gaur Zirzurkilen, tokian tokikotik, Euskal Herrira.

«Etorkizunerako ereduak ez da soldatak jaistea, baizik eta produktu berriak sortzea»

Mikel Iraola Zirurkil

Mari Jose Aranguren (Urrestilla, Azpetia, 1969) Deustuko Ekonomia eta Zientzien Fakultateko ikerlaria, eta Orkestra-Basque Institute of Competitiveness erakunde zuzendaria da. Krisia Tolosaldean eta ihes egiteko moduei buruz hitzaldia emango du gaur, 19:00etan, Zirzurkilgo Atxulondo kultur etxean. Eskualdeko egoera ekonomikoa zertan den azalduko du.

Nola ikusten duzu krisia orokorrean?

2008 hartan, Euskal Herriko enpresak beste hainbat eremutan baino hobetoago harrapatu zituen krisiak. Horregatik, hasieran hobeto eutsi zitzaion egoerari, eta soldatak jaitsiz eta ERE bidez, langabezia tasak ez zuten hainbeste gora egin. Azken urteak, ordea, gogorak izaten ari dira, baita sozialki ere. Jende asko lanik gabe geratu da, eta adinaren eta prestakuntzaren arabera, zaila da horiek berriz ere lan merkatura itzultzea. Egoera horrek beldurra sortu du jendearengan, eta kutsakorra da.

Gertura ekarrita, nolako da egoera Tolosaldean?

Gainontzeko eskualdeekin alderatuz gero, batzuetan besteak baino okerragoa da egoera. Papergintza bezalako sektore tradizional batean espezializatuta zegoen eta horrek eragin zuzena izan zuen. 3.000 langabetutik gora dago une hauetan.

Dena den, ez da egoerarik latzena. Esaterako, Urola erdian, Azpetia eta Azkoitia aldean, altzarigintza espezializatuta zeuden, eta eragina okerragoa izan da.

Zer gertatu zitzaion Tolosaldeko papergintzari?

Kostuen prezioekin lehiatu behar izan zuten paper fabrikek, beste leku batzuetan merkeago saltzen zutelako. Beraz, hemengo enpresak ere produktuak merkeago saldu behar izan zituzten. Baina horrek funtzionatu ahal izateko, enpresa handi bat izan behar da atzean, eta hori horrela ez zenez, merkatuan irautea oso zaila izan zitzaion.

Papergintzaz gain, badira kinka larriak dauden beste sektore batzuetako enpresak. Huyck Wangnerren kasua da azken aldian oihartzun gehien izaten ari dena. Nola ikusten duzu honen egoera?

Batzuetan, nahiz eta enpresa bera gutxi gaizki ez joan, kapitala atzerriko izatea kaltegarria izan daiteke, erabakiak hartzen dituztenek lurralde honekiko duten konpromiso soziala ez baita berdina. Eta horrek ere eragina badu. Zenbat eta hemengo kapital gehiago izan, erabakiak hartzeko aukera gehiago izango dira.

Krisia okerrera joango dela diote. Horrela izango dela uste duzu?

Uste dut honoa ukitu samar daukagula. Datorren urterako errekuperazio minimo batzuk hasiko

dirrelakoan nago, ez dut uste okerrera joango denik. Hala ere, garrantzitsua da guk zer egiten dugun krisian zehar: hartzen ditugun erabakiak, nola egiten dugun lan, jarrera... horrek asko markatzen du krisiaren ondoren nola gertatuko den herria.

Zer da, bada, enpresek egin beharko luketena?

Alde batetik, lankidetzaz bultzatu. Hornitzaile eta bezeroen artean badirudi ahalik eta preziorik hoberean saldu eta erostea dela helburua. Hori ahaztu eta auzolanean aritzeko sustraiak berriz indartu beharko litzukete. Ordiziako AMPOK egindakoa adibide ona da. Italiako enpresa bati erosten zizkion balbulak, hura zen hornitzaile bakarra. Baina, gertuko zortzi enpresa txikiarekin elkarlanean, eta Tecnicaliaren laguntzaz, balbula horiek egiten hasi ziren. Enpresa txiki horiek ez ziren gai banaka horrelako materialak egiteko, lankidetzan, ordea, bai. Berdina egin zuten Azpetian. Dekorazio kluster bat sortu zuten altzarigintza, dekorazio, arkitekto edota argiztapenean aritzen ziren enpresekin. Elkarlanaren bitartez, soluzio integralak emateko gai ziren.

Beraz produktuak dibertsifikatu eta merkatu berriak zabaltzea behar dira?

Hori da. Dakizunetik, eta beste batzuek dakitenetik abiatuta, elkarlanean beste produktuak sortzea. Modu horretan, lan gehiago, pro-



HITZA

duktu berriak eta merkatu zabala goa izatea lortzen dute enpresek. Adibide gehiago jarriko ditut. Esaterako, automobilgintza sektore indartsua izan da Euskal Herrian. Pixkanaka aeronautikako produktuak egiten hasi ziren, automobilgintzako jakintzetatik abiatuta. Gaur egun aeronautikako sektorea ere garrantzitsua da.

Eta Tolosaldean zer dago egiterik?

Urtetan paper fabrikentzat makinak egiten ibili diren enpresak badaude. Makina horientzat piezak egin beharrean, elkarlanaren bidez, sektore eolikorako egiten hasi daitezke adibidez. Energia berriztagarrien merkatua da etorkizuneko merkatua. Aukera ona da.

Zein beste bide daude?

Enpresetan likidezia falta handia dago. Kasu horietan, langileek kapitalean bertan parte hartu ahal izatea garrantzitsua litzateke.

Eta norbanakoen kasuan?

Prestakuntza oso garrantzitsua da. Pertsona bat izan daiteke oso

ona ingeniari gisa, baina enpresa bateko buru bada, kudeaketaz ere ondo jakin behar du. Edota alderantziz. Ez da bakarrik ekoizten jakin behar, baita saldu eta kudeatzen ere. Hala, enpresetan zein behar dauden ikusi eta prestakuntza eman behar da. Alor horretan, Lehiberriren apustua hor dago.

Zein da jarraitu beharreko ereduak?

Gauza gehiago egin beharko ditugu. Ezer egiten ez bada, Txina, India edo Europa ekialdeetako enpresek merkeago ekoiztuko dute eta etorkizun gutxi izango dute euskal enpresek. Bestalde, soldata jaitsierena ez da lehiakorrik izateko bidea. Produktu berriak sortzen joan behar dugu. Aitak askotan esan izan dit: «Dakienik ez da inor jaio, gauzak eginez ikasten dugu». Dibertsifikazioa horretan hasten da. Ausardia eduki behar dugu merkatu berrietan sartzeko. Horrek lagunduko digu krisitik ateratzen garenean besteak baino hobeto kokatuta egoten.



Migel Sororen omenez | Ogi Berri pilota txapelketa antolatuta dute. Kadeteak, jubentziak eta etorkizun mailakoak arko dira lehiatzen, larunbatean, Tolosako Beotibar pilotalekuan. **HITZA**

Pilota munduko izen esanguratsuek babestu dute Migel Soroa txapelketa

Migel Soroa Elduaingo pilotariaren omenez, I. Ogi Berri txapelketa jokatu dute, kadeteek, jubentziek eta etorkizun mailakoek

Larunbatero jokatu dira partidak Tolosako Beotibarren, 17:00etatik aurrera

Asier Imaz

Migel Gallastegi, Atano X.a, Elias Pierola, Julian Retegi, Joxean Tolosa, Ruben Beloki eta beste hainbat txapelketa handi biltu zituzten Migel Soroa zuek iragan ostean. Pilotari munduaren erdiguneko gogotza ostiralean, iraganeko izen esanguratsu hauek,

takoak bertan baitzeuden. Ogi Berri txapelketaren aurkezpena, hain handiarekin emaitza izan zen, eta bertan zegoen giroa, historikoa. Migel Sororen omenezko txapelketa hainbat pilotazalek antolatuta dute. Hauen buru, Anizeto Lazkanan tolosarra zegoen. Iñaki hain baskoak hiru ondoren, beharrezko babes ekonomikoak Jaber Altuna Ogi Berriko nagusiak eskaini zituen. «Tolosaldean horrelako txapelketa loten behar izaten genuen. Tolosako Udalaren babesa jasota, ekonomikoki aurrera atera nahian hasi ginen. Jaber Altuna lehenbidetxe ere ezagutzen nuen, pilotazalea baita bera ere. Bazkari bat egin nuen berarekin, eta ideia hasieratik asko gustatu zitzaizkidan», dio Anizeto Lazkananok. Ezinbestean, Ogi Berri egindako esfortzua bikoitza izateko esker-tu txapelketaren antolatzailek.

Etorkizuneko pilotariak

Afizionatu mailako pilotari oronek eskar-tzen saiatu dira I. Ogi Berri Torneoan Migel Soroa Omenezko txapelketara. Kadete, jubentzi eta etorkizuneko pilotarien lehiak ikusteko aukera egongo da Beotibar pilotalekuan; txapelketa partidak gutxiak. Tolosan jokatuko baitira, apirilaren 27tik ekainaren 22ra bitartek. Gaur 28 bikote osatu dituzte, eta saioak berariaz egin dute pilotariak aukeratzeko unean. Anizeto Lazkanoren esanetan, sentitu horretan ez da ohiko txapelketa izango: «Azken aldiko txapelketetan, lehia hain aurrerik finalerdietan zintzuk egongo diren badakizu. Bikote indartsuak osatzen josten dira, eta horiek emonduko lehenetako jokari. Gure kasuan, aurka-ko egiten saiatu gara. Maila handiko pilotariak maila baxagoakokin elkar-tutuz ginen. Julian Retegi berak arrazoia eman zion Lazkanari, txapelketa antolatzeko modua nola gogatu zitzaizkionela esanaz. Retegi handia Lazkanoren irriti berekoa zen,

eta txapelketa honi balio hori eman zion, bikoteen osaketarenaz, hain zuzen ere.

Migel Sororen omenezko txapelketa antolatuta dute. Tolosako Beotibar pilotalekuan, beraz, larunbatean goi mailako partidak ikusteko aukera egongo da, 17:00etatik aurrera. Lehen jardunaldia hiru egun barru jokatuko da, eta bi partidak ikusteko aukera

Txapelketako lehen jardunaldia bi partidek osatuko dute, larunbatean

egongo da. Lehen lehia jubentien artekoa izango da. Labaka Agirrek Olatuak Goleiren aurka jokatuko du. Bigarrena, eta azkena, etorkizuneko mailakoak izango dira. Añel boteak. Bizkaito Pereritongo dira kanpaina, eta besteak, Urteabizkaia eta Sanchez.

Bideoa, kiurri, Migel Sororen omenez antolatutako aurkezpen ekitaldiaren bideoa, historikoko pilotari oronek: «Itolosaldeko hitza» irratiko webgunean.

Antolatzaileak, bideoaren bideoa, gogotza ostiralean, 19:00etatik aurrera, irratiko webgunean.

Errealzioak

«Kantxan eta kantxatik kanpo, beti jaun»



Anton Soroa

Migel Sororen omenez

«Pilota txapelketa eta antolatuta duten ekitaldi honek poz handia ematen dit niri, eta familia osoari. Oraindik, aita jendarearen mezmorian dagetela kiurri, eta ez hori bakarrik, jendeak asko apretatzen zuela eta duela. Oraindik nola gogoratzen duten kuestea, lehen esan bezala, familarrentzat poz handi bat da.»



Julian Retegi

Pilota-ohia

«45 urte zituela kiurri nuen nire osabarekin partida jokatzen. Bi beso libre zituen, baina batzuek ere, ezkerrean. Kantxan jaun baten fama zuen; zeinu txarrik ez zuten inolaz ere. Handik kanpora ere beti jarrera ona zuen. Guk kiurriari badakizunolakoak garen, hau eta hori esaten dugu, baina berak bazuen zuzentasun hori.»



Elias Pierola

Pilota-ohia

«Profesionalerara igo nintzenean, lehen bi partidak berarekin jokatuta eta irabazi nituen. Bera plaza giroa zen, eta gu urdialdego nola egoten ginen, zer egin behar genuen esaten zigun. Frontoan bere tokian egoten zen beti, eta ezker-eskulin ederrak zituen. Asko maitatzen nuen.»



Luziano Juaristi

Pilota-ohia

«Enpresarekin hasi nintzenean jokatzen, bera hain zegoen. Onerak hitz edo lau izango ziren, eta bera horietako bat zen. Berehalak hasi nintzen jokatzen, eta tratuak, beti berarekin ibili izan banintz bezalakoak zen. Lagun oso handiak ginen.»



Ander Letamendia

Migela eta Migel Sororen bideoa

«Guapoa ez, baina interesantea zela esaten zidan behin eta berri. Izugarriko plantzak zuten: ariua, liraina, elegantea. Kantxan eta kantxatik kanpo beti ondo jantzita egoten zen. Pilotari hain zuzen gutxi ematen zuten, eta sekula ez zuten hitz txarrik izaten; gaur egungoek ez bezala. Esaten zuzena egin egiten zuten horietakoak zen. Liburu jarziren nuen bezala, beti gizon, eta kantxan jauna.»



Julian Iparaguirre

Pilota-ohia eta osatza

«Tolosan kiurri nuen bere omenezko partidari. Aduen urteetan ezagutu nuen, eta hizketan asko balio zuen. Oso pertsona duina zen. Binaka, Ogeta eta Lajas apatzen nituen, eta buruz buru, Julian Retegiri.»



Joxean Tolosa

Pilota-ohia eta osatza

«Pilotan ez nuen ezagutu, baina gero bai, hain zuzen dezentat ginen gainera. Omenaldi batzuetan gipuzkoar bezala elkar-trekin egonak ginen. Historiara bere ezkerrean pasatu da, kiurriari izan zuelako diote.»



Migel Gallastegi

Pilota-ohia

«Pilotalekuan elkarren aurka jokatzen genuenean, batak besteari ahal geniona egiten genion, baina kanpoin, anak bezala jainen, lagunak. Bere gaitza, pilotari handia izan zen Migel Soroa.»

HITZAK harpidetuak sarrera pare bat du

LAGUN ARO GBC
Blusena Montibus
sartekako parkea

Agintak 27 - Lehenetako 19
19.00etan Tolosako Beotibar

Zuzendaritza partekatuta dugu. **943 85 36 95** telefonoa harbidatu.

HITZAK harpidetuak sarrera pare bat du

KMK'13ren aldeko kontzertua
BENITO LERTXUNDI KANTATUZ

Agintak 26 - Ostirala 20.00etan Tolosako Beotibar

Zuzendaritza partekatuta dugu. **943 85 36 95** telefonoa harbidatu.

harpidedun izateak badu saria zozketa

- Casa Julian**
Bi laguntzako bazkaria edo afaria
Santa Klara, 6 - Tolosa
Tel.: 943-67 14 17
www.casajulian.netolosako.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**
- Hitza**
Mutilentzako kirol jantsea Neurria
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**
- Donostiako Aquariuma**
Bi laguntzako bina sarrera
www.aquariumus.com
Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Parte hartzeko deltu: **902-82 02 40** edo sartu **itolosaldeia.hitza.info** helburuan **ZOZKETAK** atalean. Autentifikazioaren: **itolosaldeia** gogotza ostiralean, 19:00etatik aurrera, irratiko webgunean.

Adunako Udala «gustura», auzo konpostaren lehen sei hilabeteen emaitzarekin

Ibarran 115 familiek eman dute izena auzo konposta egiteko; bost gune jartzea aurreikusi du udalak

Iñigo Terradillos

Aduna izan zen, duela sei hilabete, Tolosaldean auzo konposta martxan jarri zuen lehendabiziko herria, eta balantze baikorra egin dute izandako emaitzaren inguruan. Egun 15 familia dira auzo konposta egiten dutenak, eta denbora gutxian 60 izatera pasako direla azaldu dute. «herrian sortzen den materia organikoa ahalik eta gehien herrian bertan kudeatuz».

Sei hilabeteetan zehar, konposta egitearen prozesu guztia ezagutu dute parte hartu duten herritarrek, baita azken pausoa ere, hau da, euren etxeetan sortutako hondakinetatik eratorritako ongarria. Udaletik adierazi dutenez, «auzo konpostaren aukera eskaini aurretik, herritar horiek erabileratuta eman dakioken materia organiko hori guztia zabortegira botatzen zuten, baina orain, konpostari esker, familia hauetako bakoitzak, bere hondakin %40-50 gutxitzen du».

Adunatar hauek lortu duten ongarria herriko lorategietan erabiliko dute. Halaber, ongarri moduan erabiltzeko aukera izango du nahi duenak, auzo konposta gunetik hartuta, bertan kaxa batean egongo baita.

Hala, geroz eta herritar gehiagok konposta eginez, adunatarrek sortzen duten ongarria herrian bertan tratatzea lortu nahi du udalak: «Denon onurarako erabileratuta eman ez zabortegira botatzea. Gainera, merkeagoa ere izango da hondakin kudeaketa, zabortegira ez baita hainbeste hondakin eramango».

Aduna izan zen Mankomunitatea osatzen duten herrietan lehen auzo konposta martxan jarri zuena, baina beste herri askok ere martxan dituzte euren auzo konposta gunek. «Zero zabor lurralde izateko bidean, eman beharreko pausoa dira, gure bizitzetan egindako ahalegin txikiak aldatzea handiak eragiten baitituzte», esan dute.

Tolosaldeko Mankomunitatea osatzen duten herrietako edonork auto konposta zein auzo konposta egiteko aukera zabalik dagoela ere gogoratu dute. Horretarako, konpostatu.tolosaldea.org helbidean topatu daiteke informazioa, eta eskaera ere egin daiteke bertan. Mankomunitateare-

kin edota udalarekin harremanetan jarrita ere lor daiteke informazio guztia.

Ibarran, 115 familia

Bestalde, Ibarra hastear dira auzo konposta egiten. Guztira 115 familiak erakutsi du parte hartzeiko interesa, eta horietatik hamarrek konpostagailu indibiduala eskatu dute. Udala «oso pozik» agertu da izan duen erantzunarekin, «saiakera horrek zero zabor bidean urratsak ematen lagundu du delako». Bada, izena emateko epea bukatuta dagoen arren, oraindik ere izena eman daiteke, eta itxaron zerrendan sartuko litrateke herritar horiek. Hori bai, udalak herritar orori eman nahi dio auzo konpostarako aukera.

Bi gune aurreikusten zituzten, baina, ekimenaren «arrakasta» ikusita, gutxienez 5 gune jartzea pentsatu dute. Guneen kokaleku zehatzak aztertzen ari dira, baina aurretik, izena eman duten familien zenbait datu behar dituzte, hala nola, familiako kideen eta otorduen kopurua. Udaletxera, 943 67 11 38 zenbakira deituta edo ingurumena@ibarrakoudala.net-era idatzita egin ahalko dute. Datu guztiak dituztenean auzo konpostarako guneak kokatuko ditu udalak, eta orduan jarriko dute martxan ekimena.

Gutunak

Atez atekoari aukera bat ematea eskatuz

Kaixo Iruratar: Udal gobernura iritsi ginenetik ia bi urte igaro dira. Gure interes bakarra Irura eta iruratarren aldeko egitasmoak aurrera ateratzea da. Hauteskundeetara aurkeztu ginen programaren barruan «birziklatze maila handitzeko neurriak hartuko genituela» ipini genuen eta programan jarritako hura betetzea zintotasunez jokatzea da.

Egindako osoko bilkuretako batean hondakin bilketa sistemak aldatzea onartu genuen. Aurretik, hondakin inguruko udal batzordean hitz eginda, Tolosaldeko mankomunitatean partaide diren gainontzeko herriekin partekatu genuen. Bileran horien ondorioa izan zen ahal den eta birziklatze maila altuena lortzeko, atez ateko bilketa sistema eraginkorrena dela.

Gaur egungo sistemak edo 5. edukiontzia sistemak ez dio inolaz ere arazoari konponbidea eskaintzen. (%30-%35eko birziklatze tasak, hurrenez hurren). Azken urteetan mankomunitatearen gehiengo beste batzuen eskuetan egonik, zergatik ez da 5. edukiontzia sistema abian jarri? Agian orain, guk bezala birziklatzearen alde duedala diotenek ez zutelako arazoa konpontzeko inongo asmorik. Agian 5. edukiontzia sistema erabiltzen den herrietan emaitza kaxkarrak eman eta ematen dituelako?

Ahalik eta gehien birziklatzeari ezin diogu bizkarra eman. Ezin dugu gure erosotasuna hirugarrenen batzuen oinarriko eskubideen gainetik jarri. Ingarumenak, guk eta ondorengo belaunaldiak eskertuko dute arduraz jokatzen badugu. Ahalik eta gehien ez birziklatzeak errausketara garamatza. Ez gaude horrelako makroproiektuetan dirua xahutzeko. Tamalez, arazorik larriena ingurumen eta gure osasunean sortuko luke, eta gure erabakietan lehenetsun osoa dute ongizatea lortzeko laguntzen duten pausoez.

Jakitun gara Irurako zenbait pertsonen sistema aldatzeko aurrean keza edo kezak azaldu dituztela. Errespetatzen ditugu.

Askotan kritikak dituzte politikariek egiten duten guztia bozkatzeko edo ez galtzeko egiten dutela. Ez da gure kasua eta horrek sinesgarritasuna ematen digula uste dugu. Bestelako jokaera erraza bezain arduragabea izango litzateke.

Erabateko konfiantza dugu iruratar guztion artean arazoari konponbidea emango diogula. Horregatik atez atekoari aukera bat ematea eskatzen dugu!

Irurako Udala.

Tolosaldea Txukun (I)

Tolosaldea Txukun taldeak «informazio bilera» egin zuen Anoetan, Atez atekoari ezlelopean. Hizlariak, kritikarako erabili zuen lehen ildo «datuena» izan zen. Bere ustez, 5. edukiontzia ere %70 jaso daiteke ondo eginez gero. Hipotesia frogatzeko hiruko erregela matematiko bat erabili zuen: hondakinak hiru taldetan banatuz (%40 orain gaika sailka genezakeena, %40 organikoa eta %20 errefusa). Publikotik berehala gogorazi zioten, urteak daramatzala 5. edukiontzia Gipuzkoako hainbat herri eta auzotan, eta emaitzak ez direla %40a iristen (hizlariak onartu egin behar izan zuen datua, frogatua baita).

Kritikarako bigarren argumentua inposizioarena izan zen. Gure ustez, puntu honetan ohartu behar dugu jokoan dagoena oinarriko eskubide bat dela: ingurune osasungarri batean bizitzearen eskubidea. Inork ez du eskubiderik beste inor zabortegi kutsakor baten ala errauste planta baten ondoan bizitzera behartzeko (Gipuzkoako planak jasotzen du nola).

Bestetik, erabakia hartu behar duen subjektuari buruz ere hitz egin beharko litzateke: A herriak ez dauka eskubiderik B herria zein zabor eramango duen erabakitzeko, hori erabakitzeko B herriak erabaki behar du. A herria galderatuta egitea proposatzen duenak, esaten ari zaigu B herria zaborra derrigorrez jaso beharko dutela, eta horrek bi mailatako herritarrek egotea builtzatzen du. Anoeta eta Irurako herritarrok ezin diegu inposatu Zubietako gure zaborrak han erretzea. Hori ez da inondik ere demokratikoa eta gutxiago justua. XXI. mendeko Euskal Herria ez luke egon behar kutsatutako eskubiderik. Mendian zaborra botatzeko eskubiderik ez dugun bezala.

Tolosaldea Txukunek eskualdeari sinestearazi nahi dio libreki gurea gai honetan nahi duguna aukeratzeko. Baina ez da horrela. Bi aukerak hauek dira: Auzo konposta eta atez ateko bilketa, edo 5. edukiontzia eta errauste planta bat Tolosaldeatik 20 kilometro. Nahiz eta Amantegik hitzaldian makro-errauste plantaren arazoa modu erabatean konpontzen duen: «hori beste arazo bat da, eta ez gara etorri hona horri buruz hitz egitera». Eztabaida horretan arazoaren osotasuna hartu behar da kontuan. Jendea esan behar zaio 5. edukiontzia berdin berdin banatu beharko lukeela organikoa (Patxi: zergatik erabiltzen duzu etxean kubo gehiegi eduki behar direnaren argumentua?), eta orduetegiak eta kontrolak ere berdin berdin egon beharko dira. Hizlariak onartu zuen, nahiz eta ez jakin erantzuten 5. edukiontzia nola kontrolatuko lukeen nork banatzen duen eta nork ez.

Tolosaldea Zero Zabor.

Irudia >



KONPROMISO ETIKOA ESKATUKO DUTE

Alegia, Anoeta, Amasa-Villabona, Ibarra eta Tolosaldeko Zero Zabor taldeetako ordezkariak, beste hainbat herrietakoekin batera, agerraldia egin berri dute, hondakin kudeaketaren inguruko hausnarketa jasaten ari den «mutilazio saioa» kezka ikusten dutelako. Adierazi dutenez, «zen-

tzugabekeria da, gaika biltzearen alde egotea, baina gero horrekin egingo denaz kezkarik ez izatea», eta errauste planta «sektore ekonomiko-politiko indartsuen helburu» dela gehitu dute. Zero Zabor taldeak mozioak aurkeztuko ditu, udalke konpromiso etikoa har dezaten. HITZA

Emakumea ahalduntzea helburu duen tailerra egingo dute larunbatean

Leitzako kiroldegian izango da, eta gorputza ezagutu eta emakumeen arteko konplizitate bultzatu nahi dute

I. Terradillos Leitza

Leitza, Goizueta, Areso eta Arano GIZARTE Zerbitzuen Mankomunitateak antolatuta, Emakumeentzako bioenergetika eta ahalduntze tailerra izango da larunbatean, hilaren 27an, Leitzako kiroldegian, 09:30etik 12:30era. Teresa Martinez psikologoa eta gorputz lanketan adituak eta Koro Ormaetxea psikologoa, sexologia eta gorputz lanketan adituak emango dute saioa. 15 urteko gorako emakumei zuzendurikoa da, eta parte hartu nahi dutenek gizarte zerbitzuetara

hots egin beharko dute, 948 51 08 40 edo 681 265 189 zenbakietara. Parte hartzaileek arropa eroso eman beharko dute, galtzerdi potoloak eta manta bat.

Bigarren aldia da gisa honetako tailerra antolatzen dutela. Lehendabizikoa iragan azaroan egin zuten, Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunean. Lehen tailerrak izan zuen erantzun ona, eta jendearen balantze baikorra ikusita, bigarren-koz egitea erabaki dute.

Teresa Martinezek nabarmen-tzen duenez, bi helburu ditu larunbateko ekimenak: «Batetik, kontzientzia lana da eta gure gorputza ezagutzea du xede, eta bestetik, emakumeak elkartu eta euren artean konplizitatea sortzeko aukera eman nahi da». Azken honi erreferentzia eginez, Martinezek Leitzaldean burutzen ari diren Berdintasun Plana gogora-

tzen du: «Diagnostikoaren arabera, emakumeek euren artean elkartzeko beharra sentitzen dute, eta horrelako tailerren bidez harremanak sendotzen dira».

Ahalduntzeko beharra

Teresa Martinez psikologoa azaltzen duenez, «emakumea beti izan da ahulagoa, eta horregatik behar du ahalduntzea». Ahalduntze hori gaitasunen, aukeren eta boterearen kontzientzia hartuz lortzen dela dio Martinezek. Era berean, ausardia maila igotzea, mugak jartzen eta gure espazioa defendatzen, eta guretzako preziatuena dena baloratzen eta eskuratzen ikastea jorratuko dute tailerlean.

Gorputza ezagutzeko bide horretan, «kontzientzia lana» egin behar dela dio Martinezek: «Gorputzean sentitzen den min edo tentsio hori entzun behar da, eta

nahi edo behar izanez gero, aldatu». Pertsonen egunerokoan izan dezaketek adibide arrunt bat ematen du psikologoak: «Egoera zail baten aurrean bagaude, horrek tentsio bat sor diezaguke. Tentsio hori amasketarekin landu eta arindu dezakegu, edo besterik gabe, nahikoa da konturtzea edo jabetzea tentsioa zergatik dugun».

Gure buruaz gehiago jakiteko, «gorputza zer esaten ari den jakitea da giltza» psikologoaren arabera. «Gaur egungo gizarteak, ordea, abiadura handian bizitzera bultzatzen gaitu, eta albo batera uzten dugu hori», dio.

Tentsio horiek askatzen, kontzientzia hartzen, erlaxatzen eta energiak kargatzen ikasteko hamaika ariketa proposatuko dituzte bi psikologoek larunbat goizeko saioan.

● leitzaldea@hitza.info

→ Laburrak

Ur mozketa egingo dute bihar, herri osoan

LEITZA ▶ Udaletik jakinarazi dutenez, ura moztuko dute bihar, hilak 25, 20:00etatik, etzi, hilak 26, 06:00etara bitarte. Adierazi dutenaren arabera, herri osoan egingo dute ur mozketa, presioaren erregulatzailak jartzeko.

Elikagaien bilketa ari dira egiten karrapeko tabernan

LEITZA ▶ Leitzako Caritas eta gizarte zerbitzuek bultzatuta, elikagaien bilketa ari dira egiten aste osoan zehar, herriko dendetan. Bada, igandera arte, hilaren 28ra arte, egongo dira karrapeko tabernan, 18:00etatik 20:00etara. Herriar ororen parte hartzea eskatu dute. Kontserbak, arroza, lentejak, xaboia, pardelak, olio, pasta, esnea, patatak edota garbanzuak eraman daitezke.

Irudia ▶ Leitza



MAXURRENEAREN ALDARRIA PARLAMENTURA

Maxurrenea Herrintzat plataformako kideak Nafarroako parlamentuan izan ziren herenegun, EH-Bildu, Geroa Bai, Izquierda-Ezkerra eta UPNko ordezkariekin. Euren aldarrikapenen berri eman zieten. PPNk ez diela hitzordurik eman adierazi dute, eta PSNrekin, berriz, atzo bildu ziren. Gaur parla-

mentuan egingo duten agerraldiaren zain, alderdiek ez dute zalantzan jarri leitzarrek Maxurrenea herriari itzultzeko eskaeraren zilegitasuna. Bestalde, herenegun elkarretaratzea egin zuten, Leitzan, 175 lagun inguruk, Maxurrenea Leitzarrei itzultzeko eskatzeko. HITZA

Irudia ▶



LOATZOKOAK TUTERAN

Loatzo Musika Eskolako 75 ikasle eta 9 irakasle Tuteran izan dira asteburu pasa. Nafarroa Oinez Tuteran ospatzen da eta horren barruan kokatzen den Musika Oinez 13 ekimenean parte hartu dute. Ostiralean kontzertua eskaini zuten Tuterako Argia ikastolan, larunbat goizean kalejira ezberdinak egin zituzten herrian, eta arratsaldean kontzertua eman zuten Jesuitas aretoan. Musika Eskolako kideek adierazi dutenez, «oso esperientzia aberasgarria» izan da eta «oso pozik» daude dena «primeran» joan delako. HITZA

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



PATXI GOIKOETXEA OIARBIDE

(1928-2013)

Zuretzat dinak, zuretzat alai, guriok nonahi jotzen ditugun enesak Txilikutanek

Zarets

Hileta elizkibuna Zaruako Frantziskotarren elizan izango da, apirilaren 24an, 18:30ean.



≈ 24°
≈ 14°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	25°
HOTZENA	11°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarra: 687 410 118. ibaraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitzaaldea@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaundi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hemialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Ehuneko ehun Gorrotxategi menua dastatzeko aukera



Goian ekimenaren antolatzaileak, eta behean, Basque Culinary Center-en, bazkaltzen, atzo. HITZA

Iñigo Terradillos

Bazkari berezia egin zuten atzo Basque Culinary Center-en bildu zirenek. Gipuzkoako alor desberdinetako ehun arpegi ezagun elkartu ziren, Ehuneko ehun Gorrotxategi festan. Izen horrekin elkartu zituzten Idiazabalgo Luis Gorrotxategiren arrautzak, Tolosako Matias Gorrotxategiren txu-

letak eta Iñaki Gorrotxategiren postreak. Abizen bera izan arren, ez dira familia edo odol berekoak, baina gastronomiari batzen ditu hirurak, euskal gastronomiaren hiru izen garrantzitsu baitira. Euren berezitasunak batuta osatu zuten atzoko menua.

Duela bi urte inguru sortu zitzaizen hirurak elkartu eta «zerbait berezia» egiteko ideia. Bada,

azkenean bazkari batean gauzatu dute, eta emaitza, Iñaki Gorrotxategi tolosarrak adierazitakoaren arabera, «oso ona» izan da.

Bazkari legea egiteaz gain, Gorrotxategi abizena daraman beste pertsonaia ezagun bat omentzeko ere baliatu dute ekitaldia. Hain zuzen ere, Euskal Herriko Mediku Pediatrien Elkarteko presidentea den Pedro Gorrotxategi.

Agenda

GAUR

DEIALDIAK

■ **Anoeta.** Kuadrilla eguna antolatzeko bilera egingo dute, 19:00etan, udaletxean.
■ **Ibarra.** Ahozko ingeles eta frantses eskolak dohain antolatu ditu Ibarra Udalak. Urritik maiatzera izango dira, eta Ibarren errotalduta egotea, eta 1997an edo lehenago jaioa izatea beharrezkoa izango da. Ize-

na emateko aukera hilaren 30a bitartean dago zabalik. Euskara zerbitzuan edo kultur etxean eman daiteke. Informazio gehiagorako, 943 67 38 27 telefono zenbakira deitu daiteke.

■ **Leitza.** Leitzaiko Caritas eta Gizarte zerbitzuak elikagaien bilketa egiten ari dira herriko dendetan. Bestalde, hilaren 28ra bitartean Karrape tabernan egongo dira 18:00etatik 20:00etara.

■ **Tolosa.** Naturaldiaren jardunaldien barruan, 19:30ean, *Ura-aren xarma* hitzaldia izango da gaztekeraz. Jordi Sargatal izango da hizlaria, eta Topic zentroan izango da.

■ **Zizurkil.** XI. Antzerki Astearen barruan, hilaren 27an, Bakarrizketa afaria izango da Atxulondo tabernan, 21:00etan. Jon Zubia-gak eskainiko du emanaldia. Txartelak 15 eurotan Atxulondo eta Iriarte tabernetan daude.

Agurrak



Zorionak!

Saioa eta Oihane. Gaur 8 urte. Ondo pasa zuen urtebetetze egunean eta muxu potoloak aitatxo, amatxo eta Iratiren partetik!

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● agurrak

Farmaziak

GAUR

■ **Ibarra.** Egunkoia eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.
■ **Aribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. Telefonoa: 112.

■ **Iruztun.** Gastearena, M. Amaya kalea. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka berria GAURKO ESKAINTZA

Zure bizitzaren oreka yogari esker aurkitu

SURYA YOGA OIARTZUN
MAMUT bulego eraikina
Astigarragako bidea, 2 4 eskubia 1
20180 Oiarzun GIPUZKOA
Tel.: 670-69 24 04
www.yoga-oiartzun.com

Prezioa **15€**

www.mauka.eu **berria** taldea